

INTERES GATAZKEN AURKAKO POLITIKA**1. Politikaren laburpena**

Politika honen helburua "Mondragon Assembly, Koop. E."-k (hemendik aurrera MA) jarduera modu independentean egitearekin eragina izan dezakeen edozein jarduera ekiditea da. Jarduera hori inbertsioarekin, interesarekin, elkartarekin edo beste bide edo modalitate batzuekin lotutakoa izan daiteke.

2. Irismena

Politika hau bazkide langile guztientzat eta MArentzat edo haren izenean kontratuarekin lan egiten duten pertsona guztientzat da aplikagarria, eta MAren izenean edo MAK egindako banakako ekintzei eta/edo ekintza bateratuei lotuta dago. Politika honek MAK eta bertako langileek maila guztietan ezarritako jarduera, prozesu eta harreman guztiak bilduko ditu. Horiek kontratu, politika, prozedura edo antzeko bitartekoen bidez modu formalean idatzita egon beharko dute, edo ohiko jardunbidearen edo ohituraren bidez aplikagarriak izan beharko dute.

3. Portaerako arau orokorrak

Interes gatazka egoera sor daiteke langile batek neurri batzuk hartzen dituztenean edo MAn egiten duen **lana** modu objektiboan eta eragingarrian **zail dezaketen interes batzuk** dituztenean, edo horiek MAren **helburuak arriskuan jarri, kaltetu edo eragotz ditzaketenean**.

Interes gatazka sortzen da egoeraren batek, gertakizunen batek, harremanen batek... langile baten iritzi profesionalean eta independentean eragina badu edo oztopatzen badu. Bestalde, interes gatazkak sor daitezke langileek, senideek edo ahaideek sozietatean betetzen duen kargutik eratorrita bidegabeak diren onura pertsonalak jasotzen dituztenean.

Kontratu mailako eta hirugarren batzuekin egindako eskarien negoziazioak:

- ✓ Ezingo da MAren interesen helburu den sozietatearen interesak aurrean jartzea eragin dezakeen akordio batean parte hartu modu aktiboan edo pasiboan.
- ✓ Hirugarren batzuekin izandako harremanetan beti modu inpartzialean eta objektiboan jardun beharko da, finantza arloko iritzi pertsonaletatik edo ahaidetasuneko iritzietatik eratorritako baldintzarik gabe.
- ✓ Edozein kontratu mota gestionatzeko garaian, senideen edo ahaideen edozein esku-hartze (zuzenekoa edo zeharkakoa) ekidingo da.
- ✓ Ez da dagokion sozietateari mesede egin diezaiokeen MAren baitako hirugarren bati (oro har) edo bezeroei eta hornitzaileei inolako ordainsaririk entregatuko ez eta haiengandik jaso ere.

MAko langile baten eta bezeroen, hornitzaileen edo hirugarren batzuen arteko interes gatazka

- ✓ MAko langile batek bezero, hornitzaile edo hirugarren batekin duen harreman pertsonalak haren erabakietan eragina izan badezake, harreman horren berri eman beharko zaio hierarkian goiko mailan dagoenari. Hark erabakiko du zer neurri aplikatu eta neurri horietako bat izan daiteke langilea jarduera jakin horretatik deslotzea.
- ✓ Arau hori aplikagarria izango da MAko langileak harreman pertsonala/familiakoa duen hirugarren batekin edozein negozio egiten badu edo bere taldean senide/ahaideren bat duen eta, aldi berean, MAko langile batekin harreman pertsonala duen hirugarren batekin egiten badu negozioa.
- ✓ MAko langileek ezingo dute aldi berean lan egin enpresa lehiatzaile batentzat edo kontrajarritako interesak dituen enpresa batentzat.
- ✓ MAko langileek ezingo dute MAn betetzen dituzten erantzukizunak edo jarduerak garatzeko gaitasunean eragina izan dezakeen lanik bete, MAn betetzen dutenaren aldi berean.

Norbere mesedetan MAko posizioa erabiltzea

INTERES GATAZKEN AURKAKO POLITIKA

- ✓ Ezingo da MAren jabetza edo informazioa erabili bere buruarentzat, senideentzat edo ahaideentzat irabaziak lortzeko.
- ✓ Bere esparru pertsonalean lanak egiteko ezingo da MAren hornitzaileengana jo horrek arrazoi hori dela eta langilearentzat onura edo MArentzat kaltea eragiten badu.
- ✓ Ezingo dira MAn langileak duen posiziotik edo eraginetik eratorritako negozio aukerak erabili edo negozio pertsonalak izan.

Erosketak, salmentak eta beste transakzio batzuk

- ✓ Kontratu eta eskariak helburu horretarako baimena duten langileek bakarrik gestionatu ahal izango dituzte.
- ✓ Era berean, kooperatibei (bezeroak) zuzendutako zerbitzuak edo hornitzaileei egindako eskakizunak legearen eta MAren barneko araudiaren arabera egingo dira, parametro subjektiborik edo pertsonalik aplikatu gabe.

Partaidetza esanguratsua

- ✓ MAko langile batek edo haren senide edo ahaide batek MArekin edozein eratako harremana duen enpresa batean partaidetza esanguratsua balu, horren berri eman beharko lioke hierarkian bere goian dagoenari edo, egoeraren arabera, "Jokabide, erantzukizun sozialeko eta complianceko batzordeari".

4. Interes gatazka posiblea detektatuz gero jarduteko moduak

- ✓ Langile batek bere buruarekin edo MAko beste pertsona batekin lotutako interes gatazka posiblea detektatuko balu, horren berri eman beharko dio hierarkian bere goian dagoenari edo, egoeraren arabera, "Jokabide, erantzukizun sozialeko eta complianceko batzordeari".
- ✓ Era berean, a priori interes gatazkarik ez badago, baina langile edo senide/ahaide baten egoera aldatuz gero horrek interes gatazka sor badezake, horren berri ere eman beharko da.
- ✓ Interesen gatazka posibleko egoeraren aurrean, edozein ekintza gelditu eta gatazka horretan sartutako langilea edo pertsona deslotu egingo da egoera hori egokitzat jo edo hori guztia eragin duen ekintza desagerraraztea edo aurrera ez jarraitzea erabaki arte.

Politika ez betetzea

Politika horrekin lotutako edozein gorabeheraren edo kontsultaren berri zuzenean eman beharko zaio "Jokabide, erantzukizun sozialeko eta complianceko batzordeko" edozein kideri edo posta helbide honen bidez: gestionetica@mondragon-assembly.com